

RODRIGO JIMÉNEZ DE RADA (c. 1170-1247)

Rodrigo Jiménez de Radak (edo Ximénez de Radak, grafia arkaikoan) leku nabarmena betetzen du Erdi Aroan bizi izan ziren nafartar pertsonaien artean. Arma eta kulturaz hornitutako gizona eta adimen handikoa, Toledoko artzapezpiku izendatua izatera iritsiko zen, eta bere garaiko egoera politiko eta eliza-egoeran funtsezko pertsonaian bilakatuko zen, gainera bere figura ospe bereziz hornitu duten kronista eta historialari gisa lanak garatu zituen.

Ez dakigu ziurtasunez Jiménez de Rada noiz jaio zen, baina litekeena da 1170. urte inguruan jaio izana. Bere jaioterria zein izan zenaren ziurtasun osoa ere ez dago. Tradizionalki, Gares izan zela uste izan da, baina, era berean, Radan jaio izan zitekeela ere aipatu izan da. Hobeto ezagutzen dena zera da, amaren aldetik Soriako lurretan kokatutako gaztelar leinu garrantzitsu batetik jaio zela, eta aitaren aldeko bere arbasoek berriz, Alfontso I.a Batailatzailearen erregealdian Nafarroako erregetzarako kargu eta zerbitzu garrantzitsuak bete izan zituztela. Zentzu honetan, mikroerakusketan dokumentu bat ikusi daiteke; bertan Rodrigo Jiménez-ek, bere aitona Pedro Tizón-ena zen finka bat Fiteroko Monasterioari ematen dio, baita Rodrigo Jiménez-ek, Teobaldo I.a erregearengandik, Cadreitako hiribildua eta gaztelua jaso izana onartzen zuen beste bat ere. Herri horretan bere aita eta bere aitona Cadreitako jaurerria izan zutela erakusten du.

Jiménez de Radak prestakuntza akademiko pribilegiatua jaso zuen Boloniako eta Parisiko unibertsitateetan, eta horri esker, 1209an Toledoko artzapezpiku izendatzera eramango zuen politika- eta eliza-ibilbide oparoa hasi zuen. Kargu horretatik aurrera, Jiménez de Radak lan politiko eta diplomatiko garrantzitsua gauzatu zuen, erresuma kristauen indarrak batzeko asmoz Almohade Inperioari aurre egiteko. Bere lana Gaztelako Alfontso VIII.aren, Aragoiko Pedro II.aren eta Antso VII.a Azkarraren indarrak batzean gauzatuko zen, eta Tolosako Navaseko guduan almohade armada garaitua izango zen (1212), bertan Rodrigo Jiménez de Rada bera presente egon zelarik. Artzapezpikua, azkenik, 1247an hil zen Rodano ibaian, Lyonetik itzultzen ari zela, eta bere hilobiratzea Santa María de Huerta Soriako monasterioan izan zen. Mikroerakusketak, hain zuzen ere, hurrengo urtean datatuko zen dokumentu bat erakusten du. Dokumentu horretan, Errioxako Cornago herriko jauna Juan de Vidaurrek, Fiteroko Monasterioari herriko eliza ematen dio bere arima, bere gurasorena eta Toledoko Rodrigo Ximénez artzapezpiquaren arima salbatzeko.

Kultura-gizon gisa, Rodrigo Jiménez de Radak ospe handia lortu zuen kronista eta historialari bezala egin zuen lanarekin. Lan horren mugarri nagusia berak idatzitako *De Rebus Hispaniae* izan da. Latinez idatzi eta gero *Historia de los Hechos de España* edo *Crónica Gótica* gisa ezagutu eta itzulitako lanak erresuma hispanikoen historia barne hartzen du erromatar garaitik 1243ra arte. Alde horretatik, AGN-k gordetzen duen *De Rebus Hispaniae*-ren ale baten orri bakarrarekin ixten da erakusketa. Batetik, Julián kondeak Iberiar Penintsularen inbasioa indar musulmanei nola erraztu zien kontatzen du, eta, bestetik, errekonkistaren hastapenetako kontakizun mitikoa, Pelayok Covadongan egindako matxinadarekin.